



Letrak kalekantoitik
Anjel Lertxundi

Honako hau –pentsatzen dut– gure egongelako liburutegian egotea merezi duten liburu horietako bat da. Askok ikusiko dute harribitxi bat bailitzan; batez ere lagun dituen irudi eta marrazki politak kontuan harturik.

Dena den, ez da ahaztu behar liburua ez dagoela unibertsala izateko planteatuta. Hau da, Joseba Sarrionandiaren Hitzen Ondoeza obra unibertsal moduan ikusten nuen legez –haren kalitate, enfoke eta sentimendu unibertsalagatik–, beste liburu hau, berriz, ez dut horrela ikusten. Letrak Kalekantoitik ingelesera, alemanera, frantsesera... itzuliz gero, ez zait begitantzen irakurleak gatibatzeko gai izango zenik. Etnizistegia da; areago, liburu folklorikotzat ere jo daiteke, ahozko adierazpideari lotua eta, azken batean, euskaldun batek euskaldunentzat idatzitako liburu baten aurrean gaudela esan daiteke hanka sartzeko beldur handirik gabe. Kanpotar batek ezin izango luke liburu hau gozatu, ez baldin balitz euskal herriaz eta euskaldunen kulturaz ikerlari edota zale handia izango. Ni, irakurle gisa, Literatura Unibertsalak markatua nago, eta liburu bat irakurtzen dudanean, batez ere ikuspegi unibertsal horretatik bideratzen dut irakurketa, esku artean dudan liburuaren kalitatea eta eragiten didan zirrara ebaluatzeko orduan (irakurle gisa eragiten didana; alegia, beste kontu bat da beste irakurle batzuei zer eragiten dien).

Utz dezagun garbi azken hori: irakurleei zer gustatu behar zaien edo zer ez zaien gustatu behar esateko inongo asmorik ez daukat nik. Ez naiz literatura-kritikaria. Irakurle bat baino ez naiz; irakurtzen ditudan liburuei buruzko iruzkinak (komentarioak) egiten ditut –batzuetan, gogoak hala ematen didanean–, liburu bakoitzak zer eragiten didan ulertzen saiatzeko, baina nire gogo-berotasuna edo nire dezepzioa irakurleei kutsatzeko inongo asmorik gabe.

Liburu honetan agerian jartzen da denok bagenekien zerbait: Anjel Lertxundik gure hizkuntzari buruz daukan ezagutza benetan sakona dela. Baina idazle honetan badago bera zamaten duen zerbait... Nire ustez, ikuspegi modernoagoa izatea falta zaio. Eta ikuspegi edo espiritu hori, hala ere, ez da besterik gabe bereganatzen, ez dago behintzat egile baten edo gizaseme baten esku hura bereganatzea, hola, besterik gabe, modu hiperkontziente batez hartutako erabaki bat lagun (“Aurrerantzean, modernoa izango naiz”); aitzitik, egilearen –eta ziur aski, gizarte oso baten– idiosinkrasiarekin ere estu loturik dago, zeren azken finean egile baten bagajeaz ari baikara, eta ondorioz, kanpoko osagai guztiak –direnak direlakoak– izan beharko ditugu kontuan: kultur alderdiak, alderdi indibidualak zein sozialak, historikoak...

Egile bat, bera markatu duten hainbat bizipenen emaitza da. Lertxundin erakartzen nauen berberak urrundu egiten nau beragandik, zenbaitetan; darabilen hizkeraren desmasia ote den, edo hiper-kultismo susmagarri bat, bizitzaren aurrean hartzen duen jarrera jesuitiko bat, edota zergatik ez esan, haren idazkeran –batzuetan– nabarmena izaten den halako ukitu “puztu” edo, areago, pedante bat.

Hona hemen aurreko paragrafoan esaten dudanaren adibide bat, liburuaren hasieran bertan azaleratua:

“[...] *Txikia* eta *gozoa* adjektiboen arteko *baina* horrek tiratzen nau. Abade jaun tripazaleei buruzko irudi pantagruelikoa suntsitzera datorren mezu subliminala dirudi. *Baina* juntagailuak hondatzen du, ordea, *txikia* izateak idarokitzen-edo duen aszesia [...]”

Hor dauzkagun “irudi pantagruelikoa”, ondoko “mezu subliminala” eta azkeneko “duen aszesia” horiek, nahiko herrikoa den “tiratzen nau” horrekin batera nahastuta, gehi letra etzanaz agertzen diren hitzak-eta, aski zamatuta uzten dute testua, nire iduriko edo, behintzat, nire gusturako. Nolabait esatearren, Lertxundin gutxien erakartzen nauen alderdia hori litzateke, baina horrek ez du inondik ere ezabatzen Lertxundiren alderdirik erakargarriena, Lertxundiren liburuetan gehien gatibatzen gaituena –edo, behintzat, ni gatibatzen nauena–, haren irudimena baino gehiago, euskarari buruz duen errotiko ezagutza sakona eta hitz idatziarekiko uneoro erakusten duen berezko joera –hiper landua–, hain zuzen.

Ziur aski, Letrak Kalekantoitik-i aurreneko 100 orrialdeak irakurriko dizkiot, Udal Liburutegira berriz eraman baino lehen. Ez da jarraian irakurtzen diren liburu horietakoa; ez da eleberri bat. Noski, kolpe batez irakurtzeko arazorik ere ez dago, baina, nik, behintzat, ia nahiago nuke etxeko apalategi batean eduki, a-tik z-ra presarik gabe irakurri, eta handik aurrera, noizean behinka, liburu-ausaz ireki eta Anjel Lertxundi apartak sen handiz aukeraturiko esapideak arretaz eta atseginez irakurtzea. Eta, hain zuzen, liburu-dendara joan bezain laster, horixe egingo dut: Letrak Kalekantoitik erosi eta etxera eraman. Zenbait liburuk, gure etxeko liburutegi mugatuan ohorezko leku bat izatea merezi dutelako.